

# **GELA EGONKORRA**

## **1. DEFINIZIOA.**

Ikastetxean integratua dagoen eta, egokitzapenekin ere, curriculuma konpartitu ezin duten edo hein txikian konparti dezaketen eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko sortutako gela da.

Bi arrazoiengatik deitzen zaie gela hauetako EGONKOR: batetik, bertan laguntzen diren ikasleen etengabeko erreferentzia direlako; bestetik, ikaslearen beharren arabera baliabide egonkorrak dituztelako.

## **2. EZAUGARRIAK.**

Gela egonkorraren ezaugarriak honako hauek dira:

- Behar den espezialitatea Pedagogia Terapeutikoa da.
- Gelak hezitzaile bat edo gehiago ditu.
- Gela bakoitzeko ratioa 4-5 ikaslekoa da, duten arazoaren arabera.
- Curriculumaren egokitzapen nabarmena eskatzen du.
- Curriculumara garatzeko material eta ekipamendu bereziak behar ditu.
- Ohiko ikastetxean integraturiko espazio fisiko propioa du; bertan, hezkuntza-lanaren zati bat planifikatzen eta gauzatzen da.
- Espazio komunak, ordutegiak, eskola-eguna eta egutegiak gela dagoen eskulakoak berak dira.

## **3. IKASLEAK.**

Gela horietako ikasleek hezkuntza esku-hartze oso indibidualizatua eta DBH-ko gela batean nekez bete daitezkeen baldintzak behar dituen curriculumara behar dituzte. Hala ere, zenbait kasutan, gela egonkorra baliabide egokia izateak ez du inoiz kolokan ipini behar ikasleak izan dezakeen integrazio osoa edo partziala. Orokorrean, DBHn Gela Egonkorra baliabide egokia da ikaskuntzarako laguntza orokorra edo intentsiboa behar duten ikasleentzat.

Ikasle horiek, oro har, hauexek edukitzen dute:

- \* Erdiko mailako adimen-atzerapena, atzerapen larria edo atzerapen sakona.
- \* Garapenaren oinarriko eremuetan gorabeherak: soziala, komunikazioa, portaera, ez soilik ezagutze-maila baxuarekin lotuak.
- \* Ezagutze-garapen baxua.
- \* Ohiko ingurunean funtzionamendu eskasa.
- \* Laguntza gehigarriak eta curriculumaren egokitzapenak behar izan dituen ikaskuntza-ibilbidea.
- \* Beste nahasmen batzuk, urritasun sentsoziala edo asaldura motrizak kasu.
- \* Laguntza oso indibidualizatuen eta lanak egiteko maiz gainbegiratu beharra.

## **4. GURE IKASTETXEAN.**

Une honetan, gure ikastetxean Gela Egonkor bat daukagu. Gela honetan, beraien ezaugarriak direla eta, eskolatze prozesuarekin jarraitu ahal izateko baliabide hau beharrezko duten lau ikasle ditugu.

Adina aldetik 14 eta 18 urte bitartean daude.

Haien betebeharrei erantzuna emateko bi tutore eta bi hezkuntzarako laguntza espezialista daukagu.

Ikasleak gelan izateaz aparte, zentruko informatika gela erabiltzen dute. Ekintzaren arabera polikiroldegira ere erabiltzen dute, ...

Berrikuntza Proiektu batean oinarritzen da egiten duten lana. Ikasle bakoitzarentzat ahalmen eta beharretatik abiatuz, banakako lana landu egiten da. Eta, noski ekintza bateratuak ere egiten dugu.

Gelako programazioa egokitze-gaitasunen garapenean oinarrituz gauzatzen da, esaterako: komunikazioa, norberaren zainketa, etxeko bizimodua, gaitasun sozialak, autorregulazioa, osasuna eta segurtasuna, gaitasun akademiko funtzionalak, aisialdien erabilera... Azken finean, komunitatean normaltasunez integratzen laguntzen dieten gaitasunak lantzen dira.

Helburu horiek lortzeko, ikastetxean dauden gelez gain, komunitatearen beste baliabide batzuk ere erabiltzen ditugu; hala nola, igerilekua, polikiroldegia, supermerkatua... Zelan joan ikastetxetik leku horietar, joateko ibilbideak,...

Ikasle bat DBHko 1.zikloko talde baten integratzen da astean ordu bat musika entzunaldiak gozatzeko.